| may / might       | <i>It <b>may / might rain</b> tomorrow.</i>                     | Possibility                      |
| may               | <i><b>May</b> I <b>join</b> this team?</i>                      | Polite request                   |
| would             | <i><b>Would</b> you <b>open</b> the window, please?</i>         | Formal request                   |
|                   | <i><b>Would</b> you <b>like</b> something to drink?</i>         | Offer                            |
| must              | <i>You <b>must bring</b> your books to class.</i>               | Obligation, strong necessity     |
|                   | <i>She's got a great job. She <b>must be</b> very happy.</i>    | Certainty that something is true |
| have to           | <i>I <b>have to buy</b> the tickets today.</i>                  | Obligation, necessity            |
| need to           | <i>I <b>need to cook</b> dinner tonight.</i>                    | Obligation, necessity            |
| needn't           | <i>You <b>needn't bring</b> anything to the party.</i>          | Lack of obligation / necessity   |
| don't have to     | <i>I <b>don't have to get up</b> early tomorrow.</i>            | Lack of obligation / necessity   |
| mustn't           | <i>You <b>mustn't exceed</b> the speed limit.</i>               | Prohibition                      |
| should / ought to | <i>You <b>should / ought to improve</b> your pronunciation.</i> | Advice, opinion                  |
| shall             | <i><b>Shall</b> I <b>help</b> you with your luggage?</i>        | Offer, suggestion                |

Modalak ondorengo ezaugarriak dituzten aditz bereziak ditugu: aldagaitzak dira, hots, berdinak singularrean nola pluralean; ez dute **do** laguntzailearen beharrik galderak eta ezezko formak osatzeko; jarraian aditzoina daramate beti eta ez dute infinitiborik, partizipiorik, etorkizunik, **ing** amaieradun formarik, ez eta aditz-denbora elkarturik.

**Be able to** eta **have to** aditzak erdi modalak dira, jokatu egiten baitira, eta **need to** ez da modala, baina hirurak modalen laukian sartu ditugu modalen ezaugarri askotxo baitituzte: gaitasuna, obligazioa eta premia.

**can / be able to / can't**

**Can** ondorengoetarako erabiltzen da:

- Trebetasuna edo gaitasuna adierazteko (jakin / ahal izan).
- Eskaerak egiteko, baimena eman eta eskatzeko.
- Posibilitatea azaltzeko.

+ Iradokizunak egiteko ere erabiltzen da.

*You **can eat** ravioli if you like pasta.*

(Ravioliak jan ditzakezu pasta atsegin baduzu.)

+ Taulan agertzen direnez gainera erabilerak adierazten ditu.

**Be able to** aditzak gaitasuna adierazten du, **can** aditzak bezala, eta honek ez dituen aditz-denbora guztietan erabiltzen da.

**Can't** ezezko formak, ezintasuna adierazteaz gain orainaldian, honakoak ere adierazten ditu:

- trebetasun eza (ez jakin) edo gaitasun eza (ahal izan ez)
- debekua
- ezezko ondorioa edo zerbait ezinezkoa den ziurtasuna.

### **could**

**Can** modalaren lehenaldia dugu eta adiera hauetarako erabil dezakegu:

- trebetasuna edo gaitasuna adierazteko lehenaldian.
- **can** aditzarekin baino modu jasoagoan zerbait eskatzeko.
- **can** aditzarekin egiten diren bezain zuzenak ez diren iradokizunak egiteko.
- **can** aditzarekin baino posibilitate urriagoa adierazteko.

### **may / might**

Posibilitatea adierazten dute biek, **might** aditzak, hala ere, urriagoa. Galderetan, **may**, eskaerak era jasoan egiteko erabiltzen da; *May I have* egituraz hasitako eskaerak askotan "Emango al didazu?" formularen bitartez itzul ditzakegu.

### **would**

Galderetan norbaiti era jasoan zerbait egiteko eskatu nahi diogunean erabiltzen da; **like** aditzarekin elkartuta eskaintzak eta gonbidapenak egiteko erabiltzen da.

### **must / have to**

Obligazioa adierazten dute, baina **must** orainaldian bakarrik erabiltzen da eta **have to** gainontzeko aditz-denboretan. Autoritatea duten pertsonak **must** erabiltzen dute, **have to**, aldiz, edonork erabiltzen du, norbaitek zer egin behar duen adierazteko.

**Must**, era berean, ondorio logikoak adierazteko ere erabiltzen da (antza, nonbait).

### **need to / needn't**

**Need to** ez da modala, baina baieztatzeko erabiltzen da, **have to** aditzak bezala, obligazioa eta premia adierazten ditu.

**Needn't**, kontrara, modala da, zerbait egiteko obligaziorik edo beharrik ez dagoela adierazten du, **don't have to** formak bezala.

### **mustn't / don't have to**

**Mustn't** formak debekua adierazten du. **Don't have to** formak, aitzitik, "ez eduki zertan" edo "beharrik ez" adiera du, bestela esanda, obligazio eta beharrik eza, **needn't** formak bezalaxe.

### **should / ought to**

Aholkua edo iritzia adierazten dute biek, baina **should** askoz gehiago erabiltzen da. **Ought to** kasik ez da erabiltzen ezezko eta galderetan.

### **shall**

Galderetan nork bere burua zerbait egiteko eskaintzeko eta iradokizunak egiteko erabiltzen da.

## **MODAL BURUTUAK**

| Modal Perfect          | Examples                                                                        | Uses                                                               |
|------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|
| must have              | <i>Rob has arrived late. He <b>must have been</b> in a traffic jam.</i>         | Certainty that something was true                                  |
| may / might have       | <i>She <b>may / might have taken</b> the wrong bus.</i>                         | A guess about a past action                                        |
| could have             | <i>You <b>could have asked</b> the doctor before taking that medicine.</i>      | Ability to do something in the past which in the end was not done  |
| couldn't have          | <i>He <b>couldn't have gone</b> to the concert because he was doing a test.</i> | Certainty that something did not happen                            |
| would have             | <i>I <b>would have gone</b> to the party, but I was too busy.</i>               | Desire to do something in the past which in fact could not be done |
| should / ought to have | <i>You <b>should / ought to have warned</b> me earlier.</i>                     | Criticism or regret after an event                                 |
| shouldn't have         | <i>He <b>shouldn't have forgotten</b> about her birthday.</i>                   | Criticism or regret after an event                                 |
| needn't have           | <i>You <b>needn't have brought</b> anything to my party.</i>                    | An unnecessary past action                                         |

### **must have + partizipioa**

Gertatutako ekintza batekiko ondorio logikoa azaltzeko erabiltzen da.

### **may / might have + partizipioa**

Gertatutako ekintza batekiko ustea edo susmoa adierazteko erabiltzen da.

### **could have + partizipioa**

Iraganean zerbait egin zitekeen arren, azkenean ez zela egin adierazten du.

### **couldn't have + partizipioa**

Zerbait ez zela gertatu ziurtatzen du.

### **would have + partizipioa**

Iraganean zerbait egin nahi izan zela, baina kanpoko baldintzak medio, egiterik egon ez zela adierazten du.

### **should / ought to have + partizipioa**

Bi forma hauekin gertatutako zerbaiti buruzko damua edo espero genuena ez dela gertatu adieraz dezakegu.

**shouldn't have + partizipioa**

Gertakizun bati buruzko iritzia kritikoa adierazten du, ez zuela gertatu behar adieraziz.

**needn't have + partizipioa**

Egin zena egiteko beharrik ez zegoela adierazten du.

**► SHOULD / HAD BETTER**

Ikusi duzun bezala, **should** erabiltzen da gure ustez zer egin behar litzatekeen adierazteko eta aholkua nahiz iritzia emateko. Hala bada, **had better** (edo **'d better** forma laburtua) gauza bera adierazteko guztiz arrunta den beste era bat dugu.

**Baiezkoa:** Subjektuaren ondoren **had better** + aditzoina egitura ezarriko dugu. "Hobe duzu -t(z)ea" adiera du.

*You **had better** (You'd better) go to the doctor.*  
(Hobe duzu sendagilearengana joatea.)

**Ezezkoa:** **not** partikularekin aski dugu, hots, **had better** + **not** + aditzoina.

*We'd better not buy that car. It's very expensive.*  
(Hobe dugu kotxe hori ez erostea. Oso garestia da.)

**Oharra:** **had better** ez da galderetan erabiltzen.

Gainera, **should** aditzak ez duen erabilera bat ere badu, abisua emateko erabiltzen da, esandakoa egin ezean, hitzunari zerbait txarra edo desatsegina gerta dakiokela adierazi nahian bezala. Kasu honetan "Ez... gero..." egituraren parekoa da.

*You'd better tidy your room now!*  
(Hobe duzu gela txukuntzea orain!)

*You'd better not take my car!*  
(Ez hartu gero nire kotxerik!)

**► AURRIZKIAK**

Izen batzuen hasieran kokatzen ditugun osagaiak dira, hala, beste hitz berri batzuk osatzeko.

- **Un, im / il / in** eta **dis** adjektibo, izen eta aditz batzuek hartzen dituzten aurrizkiak dira, berorien aurkakoak sortzeko.

|                           |                                   |
|---------------------------|-----------------------------------|
| likely (gerta daitekeena) | unlikely (nekez gerta daitekeena) |
| polite (heziera oneko)    | impolite (gaizki hezitako)        |
| legal (legezko)           | illegal (legez kanpoko)           |
| sanity (zuhurtasun)       | insanity (erotasun)               |
| connect (konektatu)       | disconnect (deskonektatu)         |

- **Mis** aurrizkiak, izen eta aditz batzuen aurrean, zerbait gaizki edo desegoki eginda dagoela adierazten du.

|                     |                               |
|---------------------|-------------------------------|
| use (erabilera)     | misuse (erabilera oker)       |
| understand (ulertu) | misunderstand (gaizki ulertu) |

- **En** aurrizkiarekin edozein hitzetatik abiatuz aditzak osatzen ditugu, hitz horrek adierazten duen egoerarako iraganbidea deskribatzen duten aditzak, alegia.

|                 |                        |
|-----------------|------------------------|
| close (itxi)    | enclose (giltzaperatu) |
| slave (esklabo) | enslave (esklabotu)    |
| joy (alaitasun) | enjoy (gozatu)         |

- **Under, over** eta **non-** errazak dira ulertzen, eta **co-, re, inter, anti-, bi, pre** eta **multi** aurrizkiek ere, ez dute zailtasunik, euren latinekiko jatorriari esker.

**underline** (azpimarratu)  
**overloaded** (gainkargatu)  
**non-negotiable** (ez negoziagarri)  
**co-worker** (lankide)  
**rewrite** (berriidatzi)  
**international** (nazioarteko)  
**anti-hero** (antiheroi)  
**bilingual** (elebidun)  
**prehistoric** (historiaurreko)  
**multiracial** (arrazia anitzeko)

**unit 4****FOOD FOR THOUGHT****ZE HAR ESTILOA**

| Tense                      | Direct speech                              | Reported speech                                         |
|----------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| Present Simple             | "We <b>eat</b> healthy food."              | She said that they <b>ate</b> healthy food.             |
| Past Simple                | "We <b>ate</b> healthy food."              | She said that they <b>had eaten</b> healthy food.       |
| Future Simple              | "We <b>will eat</b> healthy food."         | She said that they <b>would eat</b> healthy food.       |
| Present Continuous         | "We <b>are eating</b> healthy food."       | She said that they <b>were eating</b> healthy food.     |
| Past Continuous            | "We <b>were eating</b> healthy food."      | She said that they <b>had been eating</b> healthy food. |
| Present Perfect Simple     | "We <b>have eaten</b> healthy food."       | She said that they <b>had eaten</b> healthy food.       |
| Present Perfect Continuous | "We <b>have been eating</b> healthy food." | She said that they <b>had been eating</b> healthy food. |
| Past Perfect Simple        | "We <b>had eaten</b> healthy food."        | She said that they <b>had eaten</b> healthy food.       |
| Past Perfect Continuous    | "We <b>had been eating</b> healthy food."  | She said that they <b>had been eating</b> healthy food. |

| ALDAKETAK MODALETAN |                 |
|---------------------|-----------------|
| Direct speech       | Reported speech |
| can                 | could           |
| may                 | might           |
| must / have to      | must / had to   |
| will                | would           |

| ALDAKETAK BESTE HITZ ETA ESAMOLDEETAN |                                                  |
|---------------------------------------|--------------------------------------------------|
| Direct speech                         | Reported speech                                  |
| now                                   | then                                             |
| today                                 | that day                                         |
| tonight                               | that night                                       |
| yesterday                             | the previous day / the day before                |
| last week                             | the previous week / the week before              |
| a month ago                           | the previous month / the month before            |
| tomorrow                              | the following day / the day after / the next day |
| next week                             | the following week / the week after              |
| here                                  | there                                            |
| this / these                          | that / those                                     |

Norbaitek esandakoa kontatzeko erabiltzen da, baina pertsona horrek erabilitako hitz berberak aipatu gabe.

### Reported statements

Norbaitek esan berri duena orainaldian konta dezakegu, eta horretarako nahikoa da komatxoak kentzea, eta izenordain subjektua eta aditzaren pertsona aldatzea.

*"I am hungry."*

**He says that he is hungry.** (Goseak dagoela dio.)

Ohikoa, dena dela, norbaitek esana lehenaldian kontatzea da (*He said...*). Orduan ondorengo aditzak atzera jauzia egingo du: *Present Simple* aldia *Past Simple* aldira pasatuko da, etorkizuneko *will*, berriz, *would*, aldira, etab. *-Past Perfect* aldia bakarrik da aldatzen ez dena, eta pertsona-izenordainez gain, izenordain erakusleek, edutezkoek eta denbora- nola leku-preposizioek ere aldaketak jasango dituzte.

*"I bought my house a year ago," he said.*

**He said that he had bought his house the year before.**

(Orain dela urte bete erosi zuela etxea esan zuen.)

Perpausak oraindik indarrean dagoen zerbait adierazten duenean, aditz-denborak ez du inolako aldaketarik jasaten.

*"John, Jason and Nathan are British," she said.*

**She said that John, Jason and Nathan are British.**

(John, Jason eta Nathan britainiarrak direla esan zuen.)

Zehar estiloari sarrera ematen dioten aditz arruntenak berbaldian **say**, zeharkako osagarriak behar ez duena, eta **tell** + zeharkako osagarria dira. Eta biekin isiltzen da **that** juntagailua.

*"We know which foods are causing problem behaviour," the doctor said.*

**The doctor said / told us (that) they knew which foods were causing problem behaviour.** (Sendagileak esan zigun bazekitela zein elikagai ari ziren jokaera-arazoak sortzen.)

### Reported questions

- **Yes / No questions** deituak, ("bai" edo "ez" batekin erantzun daitezkeenak) zehar estilora aldatzeko **ask** aditza + **if** edo **whether** partikulak erabiliko ditugu.

Orain galderak galdera izateari utzi eta perpaus arrunt izatera pasa direnez, ez dago subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez dago galdera-ikurrik, ez eta komatxorik.

*"Did Dr Gesch lead the research?" I asked.*

**I asked if / whether Dr Gesch had led the research.**

(Ikerteta Gesch doktoreak zuzendu al zuen galdetu nuen.)

- **Wh-questions** motakoak (**who**, **what** eta antzekoekin hasten direnak eta "bai" edo "ez" batekin erantzun ezin daitezkeenak) galdetzaile hori erabiliko dute **if** edo **whether** partikulen tokian, baina hauetan ere ez dago ez subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez galdera-ikurrik, ez eta komatxorik ere.

*"Who led the research?" I asked.*

**I asked who had led the research.**

(Ikerteta nork zuzendu zuen galdetu nuen.)

*"What are the names of the offenders?" a reporter asked.*

**A reporter asked what the names of the offenders were.**

(Gaizkileek zer izen zuten galdetu zuen kazetariak.)

### Reported orders

Aginduak zehar estilora pasatzeko, aginteraren ordeztu infinitiboa erabiliko dugu. Baina lehenik, agindua adierazten duen aditz bat erabiliko dugu, esate baterako, **order** edo **tell**, atzean zeharkako osagarria daramala.

*"Stop talking in class!"*

**The teacher ordered me to stop talking in class.**

(Gelan hitz egiteari utz niezaion agindu zidan irakasleak.)

Ezezko agindua denean, infinitiboaren aurrean **not** kokatuko dugu.

*"Don't give your son any chocolate."*

**Dr Gesch told the boy's parents not to give him any chocolate.** (Txokolaterik ez emateko euren semeari esan zien Gesch doktoreak mutikoaren gurasoei.)

Ohartarazpenak, erreguak eta gonbidapenak ere, modu berdinean adierazten dira, baina **warn**, **beg** edo **ask** eta **invite** aditzak erabiliz, hurrenez hurren.

*"Why don't you come with me?"*

*She **invited** me **to go** with her.*

(Berarekin joateko gonbit egin zidan.)

### Reported suggestions

Irakokizunak zehar estiloan adierazi nahi ditugunean **suggest** eta **recommend** aditzak erabiliko ditugu iraganean. Eta ondoren pertsona horrek iradokitakoa bi eratara kontatu dezakegu:

- Aditza gerundioan ezarri, iradokizuna egin zuen pertsona baren dagoela ulertuz.

*"Let's go to the theatre!" Beth said.*

*Beth **suggested going** to the theatre.*

(Antzerkera joan gintzen iradoki zuen Bethen.)

- Edo **that** + subjektua + aditzoina egituradun perpausa erabiliz, iradokizuna beste norbaitek edo norbaitezuek egin denean.

*"Paul had better stay in bed," the doctor said.*

*The doctor **recommended that** Paul (should) **stay** in bed.*

(Paul ohean gelditu zedin iradoki zuen sendagileak.)

Garai batean **should** modala erabiltzen zen aditzoinaren aurrean, baina erabilera hori galtzen joan zen eta gaur zaharkitutzat jotzen da.

### REPORTING VERBS

**Say, tell** eta **ask** aditzek mezua helarazten digute soilik, informazio gehiago gaineratu barik; ondorengo aditzek, ordea, hiztunaren intentzioa edo erabilitako doinua ere azaltzen dute:

- baieztapenetan: *claim, answer, admit, agree, boast, apologise, complain, declare, deny, explain, inform, insist, offer, mention, promise, refuse, remind, reply*  
*"I will be home late," she said.*

*She **reminded** me that she would be home late.*

(Berandu etxeratuko zela gogorarazi zidan.)

- galderetan: *enquire, request, want to know, wonder*  
*"Did you arrive on time?" Dave asked.*

*Dave **wanted to know** if I had arrived on time.*

(Garaiz heldu al nintzen jakin nahi zuen Davek.)

- aginduetan: *order, shout, demand, warn*  
*"Be careful!" he said.*

*He **shouted** at me to be careful.*

(Kontuz ibiltzeko oihu egin zidan.)

- erreguetan: *beg*

*"Don't tell anybody, please," she said.*

*She **begged** me not to tell anybody.*

(Inori kontatu ez niezaion erregutu zidan.)

- iradokizunetan: *advise, suggest, recommend, invite.*

*"You should keep the windows closed," Mum said.*

*Mum **advised** us to keep the windows closed.*

(Leihoak itxita eduki genitzan aholkatu zigun amak.)

## unit 5

## MUSIC MANIA

### BOZ PASIBOA

| Tense                  | Active                                                  | Passive                                                          |
|------------------------|---------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|
| Present Simple         | <i>This singer <b>writes</b> many songs.</i>            | <i>Many songs <b>are written</b> by this singer.</i>             |
| Past Simple            | <i>This singer <b>wrote</b> many songs.</i>             | <i>Many songs <b>were written</b> by this singer.</i>            |
| Future Simple          | <i>This singer <b>will write</b> many songs.</i>        | <i>Many songs <b>will be written</b> by this singer.</i>         |
| Present Continuous     | <i>This singer <b>is writing</b> many songs.</i>        | <i>Many songs <b>are being written</b> by this singer.</i>       |
| Past Continuous        | <i>This singer <b>was writing</b> many songs.</i>       | <i>Many songs <b>were being written</b> by this singer.</i>      |
| Present Perfect Simple | <i>This singer <b>has written</b> many songs.</i>       | <i>Many songs <b>have been written</b> by this singer.</i>       |
| Past Perfect Simple    | <i>This singer <b>had written</b> many songs.</i>       | <i>Many songs <b>had been written</b> by this singer.</i>        |
| Modals                 | <i>This singer <b>should write</b> many songs.</i>      | <i>Many songs <b>should be written</b> by this singer.</i>       |
| Modal Perfects         | <i>This singer <b>must have written</b> many songs.</i> | <i>Many songs <b>must have been written</b> by this singer.</i>  |
| have to                | <i>This singer <b>has to write</b> many songs.</i>      | <i>Many songs <b>have to be written</b> by this singer.</i>      |
| be going to            | <i>This singer <b>is going to write</b> many songs.</i> | <i>Many songs <b>are going to be written</b> by this singer.</i> |

### Egitura

**Baiezkoa: to be** + aditz nagusiaren iraganeko partizipioarekin osatzen da, eta aditza erregularra denean, **ed** bukaera izango du.

**Ezezkoa: not** partikula gehitzea besterik ez da **to be** aditzari.

*That film **wasn't directed** by Spielberg.*

(Pelikula hori ez zuen zuzendu Spielbergekin.)

**Galderazkoa:** galderak **to be** aditzarekin hasiko dira, laguntzailearen eta partizipioaren artean tartekatzen baita subjektua.

*Were you **examined** by the doctor?*  
(Sendagileak aztertu al zintuen?)

- Galderan aditz modal bat, etorkizunean doanen bat edo aditz-denbora elkarturen bat badago, pasiboko perpausa modalarekin edo aditz laguntzailearekin hasiko da, boz aktiboan bezala.

*Should everything in the news **be believed**?*  
(Albisteetako guztia sinetsi behar al da?)

*Will the job **be finished** by Monday?*  
(Lana bukatuta egongo al da astelehenerako?)

*Have any new bands **been discovered** lately?*  
(Aurkitu al dute talde berrien bat azken aldian?)

- Galdetzaileak galderek ere aditz laguntzailearen eta subjektuaren arteko hurrenkera aldatu egiten dute, galdetzaileak subjektu-funtzioa duenean izan ezik.

*Where will the video clip **be filmed**?*  
(Non grabatuko da bideo klipa?)

*Who was **appointed** for the job?*  
(Nor izendatu zuten posturako?)

## Nola bilakatu perpaus bat pasibo

- Aditz nagusiak perpaus aktiboan zuen aldian ezarriko dugu **to be** aditza.

*They **sold** their house last week.*

*Their house **was sold** last week.*

(Joan den astean saldu zen haien etxea.)

- Perpaus aktiboan aditzaren ondoren doan lehen osagarria bihurtuko da subjektu, dela osagarri zuzena dela zeharkakoa.

*We will give **a present** to James at the party.*

***A present will be given** to James at the party.*

(Oparia emango diogu Jamesi festan.)

*We will give **James** a present at the party.*

***James will be given** a present at the party.*

(Jamesi oparia emango diogu / zaio festan.)

Hain zuzen ere, azken aldaketa hau oso arrunta da ingelesez.

Zeharkako osagarria izenordaina bada, subjektu formara pasatuko dugu.

*They showed **me** their last album.*

***I was shown** their last album.*

(Haien azken albuma erakutsi zidaten.)

Pasibo hau, besteak beste, **give, show, tell, ask, offer, pay, promise, lend, sell** eta **send** aditzekin da posible, bi osagarriak eraman baititzakete: zuzena eta zeharkakoa.

- Perpaus aktiboko subjektua esaldiaren bukaerara pasatuko dugu, aurretik **by** preposizioa daramala. Eta pertsona-izenordaina bada, dagokion izenordain objektuaz trukatu dugu.

*Many rock stars have held concerts here.*

*Concerts **have been held** here by many rock stars.*

(Rockeko izar askok kontzertuak hemen eman dituzte.)

*He is likely to win a Grammy award next year.*

*A Grammy award is likely **to be won** by him next year.*

(Grammy sari bat irabaz lezake hark datorren urtean.)

- Aurreko orriko taulan ikus daitekeen bezala, aditz modalak eta **be going to** egitura ez dira aldatzen, hauei darraien aditza baita pasiboan jartzen dena (**be** + partizipioa).

*The technician **must operate** the camera.*

*The camera **must be operated** by the technician.*

(Kamera erabili behar du teknikariak.)

## Pasiboaren erabilera

Aurreko adibideetan ikusi duzun bezala, boz pasiboaren erabilera arruntagoa da ingelesez. Guk, aldiz, esaldiaren hurrenkera aldatu ohi dugu edo forma inpertsonalak hautatu.

Boz pasiboaren erabilera nagusienak hauek dira:

- Ekintza burutzen duen subjektuaren ordezkaria bera nabarmendu nahia.

- Ekintza burutu duen subjektua bistakoa edo ezezaguna izatea edo aipatu nahi eza.

*In this hotel, the rooms **are cleaned** every day.*

(Hotel honetan egunero garbitzen dituzte gelak.)

- Eta aurrekoaren ildotik, **they, somebody, nobody** edo antzeko subjektua duten perpaus aktiboak saihestu nahia.

*Nobody has cleaned this room yet.*

*This room **has not been cleaned** yet.*

(Gela hau ez dute oraindik garbitu.)

## ► IT IS SAID THAT / (HE) IS SAID TO

**Say, think, believe, know** eta **report** bezalako aditzekin bi motatako egitura pasiboak erabil dizakegu:

- Lehenengoa **it** izenordainaz hasten den egitura inpertsonala da, eta ondoren **that**, subjektua eta aditza duen perpausa.

*It is said that Eric Clapton is a great musician.*

(Eric Clapton musikari ona dela diote / esaten dute.)

Itzulpena ere era inpertsonalean egin daiteke, baina aktiboan: "Esaten dute, uste da..."; **know** aditza, dena den, pasiboan ere itzul daiteke.

*It is known that many pop singers come from England.*

(Jakinekoea da pop abeslari asko Ingalaterrakoak direla.)

- Bigarrenagoa, **it**, izenordainarekin hasi ordez, solasaren gaia den pertsonarekin hasiko da; ondorioz, subjektua + goiko aditz horietako bat pasiboan + infinitiboaz eraikitako egitura izango dugu.

*Eric Clapton **is said to be** a great musician.*

Era honetako pasiboa euskaratzerakoan, subjektu orokorretara ere jo dezakegu "jendeak, mundu guztiak", etab.

*That band **is known to have** an awful singer.*

(Jakinekoea da / Mundu guztiak daki talde horrek abeslari oso txarra duela.)

*Young people **are believed to like** only noisy music.*

(Jendeak uste du gazteei musika zaratzatua bakarrik gustatzen zaiela.)

**Consider** aditza bigarren pasibo mota honetan bakarrik da posible.

*Eric Clapton **is considered to be** a great musician.*  
(Eric Clapton musikari bikaintzat jotzen da.)

### ► HAVE / GET + SOMETHING + DONE

**Have** eta **get** + izena + partizipioa egitura, norbaiti eskatutako ekintzak adierazteko erabiltzen da.

*I'm going to **have / get** my hair **cut**.* (Ilea moztera noa.  
[beste pertsona batek egingo du eta ez nik].)

Egitura honek esanahi pasiboa du, erdian doan izenak partizipioan doan aditzaren bitartez adierazitako ekintza jasotzen baitu. Euskaratzerakoan, ordea, boz aktiboa erabiliko dugu.

*I **got** my car **repaired** yesterday.*

(Atzo konponarazi / konpondu nuen kotxea.)

**Have** nahiz **got** bereizgabe erabiltzen badira ere,

**get** informalagoa da eta arruntagoa ere bai ingeles mintzatuan.

*We **got** our house **painted** last week.*

(Etxea pintatu genuen / ziguten joan den astean.)

### ► COLLOCATIONS

Lehenengo unitatean ikusi genuen zer ziren, baita **run** nahiz **break** aditzekin osatutako adibide batzuk ere. Orain **go** aditz gisa eta **go** izen gisa duten beste batzuk ikusiko ditugu.

go bald (burusoildu)

go broke (peto / sosik gabe geratu)

go mad (erotu)

have a go at (probatu, saialdi bat izan)

(be) on the go (gelditu gabe ibili)

Ikus glosarioan **thing** izenarekin osatutako beste **collocations** batzuk.

## unit 6 MAKING CHOICES

### ► BALDINTZAZKO PERPAUSAK

| FIRST CONDITIONAL                |                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|----------------------------------|-----------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Conditional clause               | Result clause                                             | Examples                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| if<br>+ Present Simple<br>unless | Future Simple<br>+ base form<br>may / might<br>imperative | <i>If you <b>study</b> something practical, you <b>will have</b> a profession.</i><br><i>You <b>will meet</b> a lot of people <b>if</b> you <b>go</b> to university.</i><br><i>If she <b>is</b> free tomorrow, she <b>may / might want</b> to come with us.</i><br><i><b>Look for</b> a summer job <b>unless</b> you <b>want</b> to travel abroad.</i> |
| SECOND CONDITIONAL               |                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| if<br>+ Past Simple<br>unless    | would<br>+ base form<br>could / might                     | <i><b>If I had</b> the opportunity, I <b>would become</b> an engineer.</i><br><i>I <b>could / might visit</b> London <b>if</b> my friends <b>were</b> there.</i>                                                                                                                                                                                       |
| THIRD CONDITIONAL                |                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| if<br>+ Past Perfect<br>unless   | would have<br>+ past participle<br>could / might have     | <i><b>If you had listened</b> to me, this <b>wouldn't have happened</b>.</i><br><i>He <b>could / might have studied</b> at university <b>if</b> he <b>had wanted</b> to.</i>                                                                                                                                                                           |

Baldintza adierazten duen menpeko perpaus batez (*conditional clause*) eta ondorioa adierazten duen nagusi batez (*result clause*) osatutako perpaus elkartuak dira. Hiru motatakoak daude.

#### Baldintzazko lehenen

Honela eratzen da: **if** + *Present Simple* baldintzazko perpausetan eta **will** partikuladun etorkizuna ondorioan. Adierazitako baldintza betetzen bada, ondorioz zer gertatuko den adierazten du.

***If I finish** the project soon, I **will go** to the cinema with you.*  
(Lana laster bukatzen badut, zinemara joango naiz zurekin.)

Taulan ikus dezakezunez, baldintza badoa lehenik, bi perpausen artean koma idatziko dugu.

Etorkizuna erabiltzeaz gain, **may** eta **might** modalekin edo aginterarekin ere adieraz dezakegu ondorioa.

***If the library is** open, I **may / might borrow** a book.*  
(Liburutegia zabalik badago, badaiteke / baliteke liburu bat ateratzea.)

***If you see** Jane, **say hello** to her.* (Jane ikusten baduzu, agur ezazu.)

Ezezko eran baldintzazko perpausoko aditza ezeztatu dezakegu edo baieztatu ez dezakegu eta **unless** juntagailua erabili, **if not** erabiltzearen pareko dena (ez ba... / ezean).

*He **won't believe** anything **unless** we **prove** it is true.*  
(Ez du ezer sinistuko, egia dela frogatzen ez badugu / frogatu ezean.)

## Baldintzazko bigarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Simple* baldintzan eta **would** + aditzoina ondorioan. Orainaldiarekin loturiko baldintza hipotetikoak adierazten ditu, hau da, gertatzeko aukera gutxi dutenak. Euskaraz baldintzazko perpausoko aditza ba- aurrizkiarekin doa eta ez ingelesez bezala lehenaldian.

*If you told him, he would understand the situation.*  
(Kontatuko bazenio, ulertuko luke egoera.)

Menpeko perpausoko aditza **to be** denean, **were** erabiltzen da singularreko nola pluraleko pertsona guztiekin.

*If that camera weren't so expensive, I would buy it.*  
(Kamera hori hain garestia ez balitz, erosi egingo nuke.)

Eta aholkuak ematen ari garenean, **I** izenordainarekin beti **were** erabiltzen da.

*If I were you, I would ask my parents for permission.*  
(Nik zure tokian, gurasoei eskatuko nieke baimena.)

Baldintzazko bigarrenaren aldaera ohikoenak **could** eta **might** modalak dira, baina hauek biek hipotesia burutzeko aukera are urriagoa dela adierazten dute. Euskaraz "agian / behar bada / gerta liteke" eta antzekoak erabil ditzakegu itzultzerakoan.

*If I could study all night, I would pass the test tomorrow.*  
(Gau osoan ikasi banezake, biharko azterketa gaindituko nuke.)

## Baldintzazko hirugarrena

Honela eratzen da: **if** + *Past Perfect* baldintzan eta **would have** + partizipioa ondorioan. Kasu honetan ez da

baldintza bat adierazten, iraganari loturiko zerbait baizik; hipotesia, beraz, burutu ezina da.

*You would have learnt to play the guitar sooner if you had taken classes.* (Lehenago ikasiko zenukeen gitarra jotzen, klaseetara joan izan bazina.)

Baldintzazko hirugarrenaren aldaerak perpaus nagusian **could have** eta **might have** + partizipioa hautatuz eratzen dira.

*If we had bought the tickets on time, we could / might have gone to the cinema.* (Sarrerak garaiz erosi izan bagenitu, agian zinemara joango ginatkeen.)

## ► DENBORAZKO PERPAUSAK

Etorkizunarekin lotuta daudenak baldintzazko lehenengoak bezala eratzen dira: *Present Simple* aldia menpeko perpausetan eta **will** laguntzailearen etorkizuna perpaus nagusian. Aldatzen dena juntagailuak dira, kasu honetan **when**, **by the time**, **as soon as** eta antzekoak direlarik.

*When I get home, I'll call you.*  
(Ettxera iristen naizenean, deituko dizut.)

*I will buy a car as soon as I pass my driving test.*  
(Kotxea erosiko dut, gidatzeko azterketa gainditzen dudana bezain laster.)

## DESIRA-PERPAUSAK

| Form                                | Uses                                                            | Examples                                                                                         |
|-------------------------------------|-----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|
| wish / if only<br>+ Past Simple     | Refers to a present situation that the speaker is unhappy about | <i>If only I had a computer.</i><br><i>He wishes his friends were here now.</i>                  |
| wish / if only<br>+ Past Perfect    | Expresses regret about a past action or situation               | <i>If only I hadn't lost my mobile phone!</i><br><i>I wish he had called me.</i>                 |
| wish + could / would<br>+ base form | Expresses a desire for something to happen in the future        | <i>I wish I could go to university.</i><br><i>I like Jack so much. If only he would call me!</i> |

Desira-perpausak nahia azaltzen dute eta ingelesez bi eratara osa daitezke: **wish** aditzarekin eta **if only** egiturarekin.

**Wish** aditzak "desio izan" adiera du, baina era honetako perpausetan "nahiago nuke, zenuke..." "gustatuko litzaidake, litzaioke..." egiturak ditu pareko. Subjektua **I** denean, euskarara "Ahal...!" itzuliko dugu. Ondoz ondo menpeko perpausa daramala, **that** juntagailua isildu egiten baita.

*Rick wishes (that) he lived closer to his school.*  
(Eskolatik gertuago bizitzea gustatuko litzaioke Ricki.)  
*I wish (that) I lived closer to my school.*  
(Eskolatik gertuago bizi ahal banintz!)

**If only** egiturak ere adiera bera du: "nahiago nuke, luke...", "gutxienez...".

Bai bata eta bai bestea aditz-aldi desberdinekin erabil daitezke, taulan agertzen den bezala:

- *Past Simple* aldia hautatuko dugu aldatu edo hobetu nahi genituzkeen oraingo egoerez jarduteko.

*I wish / If only I were more responsible.*  
(Nahiago nuke arduratsuagoa banintz.)

- *Past Simple* aldian doan aditza **to be** bada, **were** erabili behar da pertsona guztiekin, baita singularreko 1. eta 3.ekin ere (subjuntiboaren azternak dira.)

*I wish / If only it were that simple!*  
(Nahiago nuke hain erraza balitz!)

- Lehenaldi burutua hautatuko dugu iraganeko ekintzez aritzeko, jada konponbiderik ez dutelako pena adierazteko.

*Do you wish you had stayed in Ireland longer?*  
(Nahiago al zenuen Irlandan luzaroagoan gelditu?)

*If only I had known earlier!*  
(Lehenago jakin ahal izan banu!)

- **Could** edo **would** + aditzoina erabiltzen baditugu, etorkizuneko ekintzez ari gara, adierazitakoa gertatzea nahiko genukeela aditzera emanez.

*I wish I could pass the literature test.*

(Literaturako azterketa gainditu ahalko banu.)

- **Wish** eta aditzoinaren subjektua desberdina bada, orduan **would** erabiliko dugu.

*I wish / If only the weather would improve.*

(Nahiago nuke eguraldiak hobera egingo balu.)

# WORD LIST

## A

a good deal /ə ɡʊd 'di:əl/ asko  
above all /əˈbʌv 'ɔ:l/ bereziki, batez ere  
abroad /ə'brɔ:d/ atzerri(an/ra)  
accountant /ə'kaʊntənt/ kontulari  
address (v) /ə'dres/ (norbaiti) zuzendu  
afford /ə'fɔ:d/ (erosteko, egiteko) aukera izan  
all /ɔ:l/ guzti (ak)  
all in all /ɔ:l m ɔ:l/ orokorrean  
allow /ə'laʊ/ utzi, baimendu  
alone /ə'ləʊn/ bakarrik  
annoyed /ə'nɔɪd/ haserre  
apartment /ə'pɑ:tmənt/ (Am. Eng.) pisu, apartamentu  
apply for /ə'plai fɔ:/ eskatu  
appreciate /ə'pri:ʃieɪt/ begi onez ikusi, ongi iruditu  
(*be appreciated*: ongi ikusia egon), eskertu  
approach (n) /ə'prəʊtʃ/ metodo  
approach (v) /ə'prəʊtʃ/ hurbildu  
ardent /'ɑ:dənt/ sutsu  
argue /'ɑ:gju:/ eztabaidatu  
argument /'ɑ:gjumənt/ eztabaida  
as long as /æz 'lɒŋ æz/ baldin eta...  
assortment /ə'sɔ:tmənt/ bilduma, aukera zabal  
autumn /'ɔ:təm/ udazken  
avoid /ə'vɔɪd/ saihestu

## B

ban (v) /bæn/ debekatu  
be about to /bi: ə'baʊt tu:/ -(z)eko zorian egon  
be all ears /bi: ɔ:l 'iəz/ (*idiom*) adi-adi entzun  
beat about the bush /bi:t ə'baʊt ðə 'bʊʃ/ (*idiom*)  
itzul-inguruka ibili  
beg /beg/ erregutu, eske ibili  
bell-bottom jeans /belbɒtəm 'dʒi:nz/ galtza  
barren zabalak  
biologist /baɪ'ɒlədʒɪst/ biologo  
biscuit /'bɪskɪt/ galleta  
bite off more than one can chew /baɪt ɒf mɔ: ðæn  
wʌn kæn 'tʃu:/ (*idiom*) ahal baino gehiago hartu  
norberaren gain  
bite somebody's head off /baɪt sʌmbəʊdɪz 'hed ɒf/  
(*idiom*) modu txarrean erantzun, errieta egin  
boarding school /'bɔ:diŋ sku:l/ barnetegi  
boot /bu:t/ maletategi  
bottom line /bɒtəm 'laɪn/ azken balantze, (*the ~ is*  
*that...*: hitz gutxitan, laburbiltzeko)  
break a habit /breɪk ə 'hæbɪt/ ohitura bati utzi  
break a promise /breɪk ə 'prɒmɪs/ hitza jan / ez bete  
break a record /breɪk ə 'rekɔ:d/ marka hautsi

break someone's heart /breɪk sʌmwʊnz 'hɑ:t/  
bihotza erdibitu norbaiti  
break the ice /breɪk ði: 'aɪs/ gela hautsi, lotsa gainditu  
break the law /breɪk ðə 'lɔ:/ legea hautsi / urratu  
break the monotony /breɪk ðə mənə'tɒnɪ/  
monotonia hautsi  
break the news /breɪk ðə 'nju:z/ albistea eman  
burst into tears /bɜ:st ɪntu: 'tiəz/ negarrez hasi  
business executive /'bɪznəs ɪgzekjʊtɪv/ exekutibo

## C

cab /kæb/ (Am. Eng.) taxi  
can (n) /kæn/ (Am. Eng.) lata, poto  
candy /'kændi/ (Am. Eng.) karamelu, goxoki  
chance /tʃɑ:ns/ abagune, aukera  
change for the better /tʃeɪndʒ fɔ: ðə 'betə/ hobera  
egin / aldatu  
charm (n) /tʃɑ:m/ xarma, lilura  
check /tʃek/ berrikusi, aztertu  
cheer (v) /tʃiə/ txalotu, biba-oihuak egin  
chemist's /'kemɪsts/ botika  
chips /tʃɪps/ patata frijituak  
choice /tʃɔɪs/ aukera  
clap (v) /klæp/ txalo egin  
closet /'kloʊzɪt/ (Am. Eng.) armairu  
collapse (v) /kə'leɪps/ hondoratu, gainbehera etorri  
come along /kʌm ə'lɒŋ/ iritsi, gertatu; etorri, joan,  
lagundu  
command /kə'mɑ:nd/ ezagutza  
commit a crime /kə'mɪt ə 'kraɪm/ lege-hauste bat egin  
computer programmer /kəm'pjʊ:tə 'prəʊgræmə/  
informatikari  
confident /'kɒnfɪdənt/ norberarengan uste osoa  
duena, buru-lasai  
contest (n) /'kɒntest/ lehiaketa  
convincingly /kən'vɪnsɪŋli/ modu sinesgarrian  
cookie /'kʊki/ (Am. Eng.) galleta  
cope with /'kəʊp wɪð/ aurre egin, jasan  
(a) couch potato /(ə) 'kaʊtʃ pə'teɪtəʊ/  
nagi, alfer, telebistazale amorratu  
crave /kreɪv/ irrikatu  
crime /kraɪm/ delitu, delinkuentzia, kriminalitate  
crowded /'kraʊdɪd/ jendez gainezka  
currently /'kʌrəntli/ gaur egun

dare (v) /deə/ ausartu  
day-care centre /'deɪkeə sentə/ haur-eskola,  
hautzaindegia  
deal (n) /di:əl/ hitzarmen, akordio

